

## Donostian, 2022ko azaroaren 22an

Ikastolen Elkartean batzen garen 113 ikastoletako ordezkariak elkartu gara gaur, Donostian, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako garatzen ari den Hezkuntza Lege berriaren eta Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren inguruan egin ditugun hausnarketak plazaratzeko. Eskualdez eskualde elkartu gara ikastolak gaia jorratzeko, beronek etorkizuneko euskal hezkuntza sisteman izango dituen erronkei buruz hitz egiteko, bai eta ikastolen mugimendutik begira eraiki nahi dugun Euskal Herrirako Hezkuntza Sistemari begira urrats garrantzitsu bat izan daitekeen une honek duen garrantzi handia azpimarratzeko ere.

Ikastola guztien izenean hitza hartu dute gure mugimenduko ordezkari nagusiek: Koldo Tellituk, Nekane Artolak, Elena Zabaletak eta Peio Jorajuriak.

Segidan duzue gaurko agerraldian egin dugun adierazpena.

---

Gu ikastola gara, Euskal Herriko zazpi lurraldeetan zehar hedatuta gauden Euskal hezkuntza eragile bakarrak. Eta horregatik gaur ere, zazpi lurraldeetako ordezkariak elkartu gara hemen, 113 ikastoletako zuzendari, guraso eta artezkaritza kideekin batera, gure izaerari erantzunez, elkarlanean eta guztion artean eraikitako mezua helarazteko asmoz.

2022ko martxoaren 31n **baloratu** genuen EAJ, EHBildu, PSE eta Elkarrekin Podemos alderdiek adostutako EUSKAL HEZKUNTZAREN ERALDAKETARAKO OINARRIEN **AKORDIO**aren **zirriborroa**. Balorazio hartan, sinatu berri zuten akordioan jasotzen ziren puntu eta ideia batzuk **begi onez** ikusi genituen. Esate baterako: ikasleek eskuratu beharreko hizkuntza-komunikaziorako gaitasun maila(k) zehaztea, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren (EHZP) sorrera, definizioa eta parte izateko bete beharreko baldintza eta konpromisoak akordioan bertan jasota egotea edota segregazioa ekiditeko proposamenak zehaztea. Aldi berean, bazen **kezka eta ardura** sortzen zizkigun beste hainbat gako ere: Euskal Herriaren aipamen falta, eskolatze batzordearen osaera ez definitzea, Euskal Curriculumari erreferentzialtasun eza, hizkuntzen tratamenduaren gaineko zehaztapen falta, 0-3 zikloari dagokion proposamena eta abar. Orduan **aurreratu genuen bide luzea genuela** eraikitzeko; orduan abiatzen zela lanik zailena eta esanguratsuena, legearen idazketa prozesua, alegia. **Azpimarratu genuen** hitzarmenak jasotzen zuenak legean **zehaztapen handiagoa** beharko zuela izan, eta idazketa prozesuan gorabeherak egongo zirela. Momentu gorabeheratsu horiek iritsi dira, baina ziur gaude, orain arte erakutsitako jarrera eraikitzaileari eusteko gai bagara, bizi dugun abagune historiko hau arrakastarekin gauzatzeko aukera dugula.

Zazpi hilabete eta gehiago joan dira azalpen horiek eman genituenetik eta bidean, **irailaren hasieran, Hezkuntza Legearen lehen zirriborroa** ezagutu genuen. Dokumentua irakurtzean, **orduan esandakoa berretsi** ahal izan genuen. Hau da,

legeak eskatzen dituen zehaztapenetan desadostasunak eta, ondorioz, gorabeherak izango genituela.

Azken hilabeteetan **ikastoletan eztabaida prozesuak** ireki ditugu, geure **komunitatearen iritzia** jaso nahi izan dugu. Horrez gain, **eskualdeko bilerak antolatu** eta **gauzatu** ditugu **lege zirriborroaren nondik norakoak aztertu eta ikastolen premia eta nahiak jasotzeko.**

Gaurko **ekimen honen bitartez, gogoetaren ondorioak** zuekin, euskal herritarrekin, **partekatu** nahi ditugu. Ez diogu, baina, lege zirriborroari eta bere artikulatuari erreferentzia zuzenik egingo, **begirada orokorrago batetik** helduko diogu gaiari.

1. Gure ustez, **Lege honek Euskal Herriko Hezkuntza Sistema eraldatzen lagundu behar du eta horretarako dauden aukerak azalertzen saiatuko gara.**
2. Euskal Herriko hezkuntza sistema bi estatuk eta hiru administrazio desberdinek arautzen dute (laurk, Trebiñuko kuadrillarekin), eta horrek **zaildu egiten du euskal lurralde osorako proiektuak bideratzea. Ikastolok, horretan ahalegin berezia egiten dugu;** Euskal lurralde osorako **proiektu bakarra da gurea,** eta administrazio desberdinek bete ezin dituzten hainbat hutsune betetzen ditugu ikastolok gure jardunarekin. Zazpi lurraldeetako ikastolen arteko elkarlana sustatuz, proiektu komunak landuz edo eta gehien behar duten ikastolentzat elkartasun ekimenak bultzatuz. Euskal Herri honetan **orain arte behintzat instituzioek ez digute marko legal egokirik eskaini,** eta, ondorioz, Espainiako edo Frantziako eskema dualean sartzera behartu gaituzte. Baina ikastolok **bestelako eredu bat** izan nahi dugu, eta gogor egin dugu lan horretarako. Gaur egun, garaiak erabat aldatu diren arren, **Euskal Herriarekin dugun konpromisoari eutsi eta gure ezaugarriak gizarte osoari eskaini nahi dizkiogu:**
  - a. Gure ardatza den euskaraz gain;
  - b. euskal kulturaren transmisioa,
  - c. euskal curriculuma,
  - d. gobernantza eredu demokratikoa,
  - e. parte-hartzea, elkarlana, auzolana,
  - f. berrikuntza,
  - g. materialgintza propioa...

**Horregatik, gure indargune diren ezaugarri hauek mantentzeko eta zabaltzeko marko legal berri bat aldarrikatzen dugu.**

3. Gure helburua **hezkuntza sistema propioa da,** eta horretarako **urratsak egin ditugu** azken hamarkadatan. Eta **orain ere badagokigu urratsak egitea,** eskuzabal baina sendo. Urte hauetan guztietan **euskal hezkuntzari egin ditugun ekarpena egiten jarraitzeko asmoa dugu.**

Ikastolon ezaugarri nagusietako bat da **hezkuntza komunitatean oinarritzea**; **hezkuntza inklusibo eta euskaldunaren aldeko apustua** egin nahi badugu komunitatean oinarritu behar dugu. Hori da Lege honi eskatu behar dioguna, **eskolaren autonomia erreala bermatzea, gureak diren ezaugarri horiek ahalik eta zabalkunde handiena izan dezaten**, bokazio publikoz jaio baikinena. Eta horretarako **ezinbesteko iruditzen zaigu publiko-pribatu dikotomia gainditzea**, eta **Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa** ardaztuko duen sistema arautzea.

4. Euskal gizarteak pisuzko **erronkak** ditu egun. Beste batzuen artean, **segregazioa eta euskara eta euskal kulturaren transmisioa**. Eta horiei, **herri moduan** erantzun behar diegula argi dugu, **modu kolektiboan eta eragile desberdinen arteko elkarlanaren** bidez. Erronka horiek aurrean izanda, **ezin dugu eragileen artean mokoka ibili** (ikastolak ez gara ibiliko); denok gara beharrezkoak, ez da gure artean liskarrak sortzeko garaia, **herri gisara pentsatuz elkarrekin ekiteko unea baizik**.

**Euskararen arloan, kultur transmisioa ziurtatzeko zein segregazioari aurre egiteko neurrietan, handira jokatzeke unea dela aldarrikatzen dugu.**

5. **Ikaslea ardatz**. Hezkuntza berrikuntzan jarri nahi dugu arreta, horretarako, pedagogia eredu aurreratua, ebidentzia zientifikoan oinarritua, pertsonaren garapenean zentratua... aldarrikatzen dugu. Pertsona bere osotasunean, alderdi fisiko zein emozional-mentalean, orekatua izatea bilatuko duena.
6. Gure gizartean dugun tradizioari jarraituz, **eredu herritar baten alde egiten dugu guk. Zerbitzu publikoa ardatz, baina herritarra, udalen parte hartze zuzenarekin**. Eta **erabakietan komunitateak parte hartuko duen eredu baten alde** egiten dugu. Eragileen arteko elkarlanarekin elikatuko dena. Behar beharrezkoa baitugu euskalgintzan, kulturgintzan, aisialdian zein herrigintzan dabilen eragile ororekin diseinatzea gure etorkizuna.
7. Lehen aipatu dugun bezala, orain arte behintzat Espainiako edo Frantziako eskema dualean sartzera behartu gaituzte, baina **une honetan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan** besterik ez bada ere, **aukera ikusten dugu**, alde batetik, **marko dual hori puskatzekoa eta**, bestetik, **Euskal Herriko ikastetxeen arteko proiektu komunak bideratzekoa**. Garbi adierazi nahi dugu **ez dugula**, inolaz ere, **alde batera utziko, Iparraldean eta Nafarroan euskarazko irakaskuntzan ari diren ikastolekin dugun konpromisoa**.
8. **Eta hori da, hain zuzen ere, agerraldi honetan eskatu nahi duguna:**
  - **Zehaztu ditzagun Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoan parte hartzeko ikastetxeek bete behar dituzten baldintzak eta izango dituzten eskubide eta betebeharrak.**

- **Bultzatu dezagun sistema euskalduna, integratzailea, ikastetxeen autonomia erreala bermatuko duena.**
- **Eta horretarako, baliatu ditzagun orain arte egon diren esperientzia eta errealitate ezberdinak.** Ikastolok asko lagundu dezakegu horretan. Esperientzia handia eta autogestionatua izan dugu, Euskal Herri osoan errealitate bihurtu dugun eredu.

Sinisten dugu Euskal Herriko hezkuntza eragileon gaitasunean eta konpromisoan. **Hezkuntza sistema berri baterantz egin nahi dugun bidean adostasunak bilatzeko ahalegina egin behar dugu denok.** Gure aukera da. Erreparatu diezaiozun batzen gaituenari eta egin dezagun bidea hortik abiatuz, eragile guztiok aukera berdintasunean eta elkarlanean.

**Eta momentu honetan gauzatu ezin dezakegunari** (Euskal Herria, esperientzia eta errealitate ezberdinak elkartu) **eman diezaiozun aukera etorkizunean gauza dadin,** ez diezaiozun atea itxi etorkizunari.

**Eta hori da alderdi politikoei, gizarte eragileei eta gizarte osoari eskaini eta eskatu nahi dioguna.**

Benetan **Euskal Hezkuntza Sistema berri, ezberdin eta eraldatzaile batean sinisten badugu, batu gaitezen denok, har dezagun esperientzia ezberdin bakoitzetik onena,** eta utz diezaiozun etorkizuneko Euskal Herriari atea irekita.

Eta uler dezagun legea Euskal Hezkuntza Sistema nazional propioaren bidean **urrats garrantzitsu moduan.** Ezar diezaiozun zoru sendoa, zehaztasun handienarekin. **Eta trantsizio horretan, bide horretan, ikastolok hor egongo gara, laguntzeko eta eztabaidatzeko prest, zintzo eta leial.** Jarrera ireki eta eraikitzailearekin orain arte bezala.

Gu Euskara

Gu Euskal Herria

Gu Ikastola

## Donostia, 2022ko azaroaren 22an

Representantes de las 113 ikastolas que formamos Ikastolen Elkartea nos hemos reunido hoy en Donostia para hacer públicas nuestras reflexiones sobre la nueva Ley de Educación que se está desarrollando para Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. Estas reflexiones han sido elaboradas en las reuniones que hemos celebrado las ikastolas comarca por comarca, para tratar desde nuestra perspectiva los retos que se plantean en la futura ley, así como para subrayar la gran importancia que tiene este momento para que dé un paso importante de cara construir un Sistema Educativo propio para Euskal Herria.

En nombre de todas las ikastolas han tomado la palabra los máximos representantes de nuestro movimiento: Koldo Tellitu, Nekane Artola, Elena Zabaleta y Peio Jorajuria.

A continuación os presentamos la declaración realizada en la comparecencia de hoy.

---

Somos ikastola, somos comunidad. Formamos el único agente educativo vasco que está extendido por los siete territorios de Euskal Herria. Y por eso, hoy también, siendo coherentes con nuestra naturaleza, nos hemos reunido aquí los representantes de los siete territorios, junto con los directores de 113 ikastolas, padres, madres y miembros de las Juntas Rectoras; con el objetivo de trasladar un mensaje común, elaborado por todos, como es costumbre en nuestra manera de ser y de hacer.

El pasado 31 de marzo de 2022 valoramos el borrador del ACUERDO DE BASES PARA LA TRANSFORMACIÓN EDUCATIVA VASCA acordado por el PNV, EHBildu, PSE-EE y Elkarrekin Podemos. En aquella ocasión valoramos positivamente algunos de los puntos e ideas que se recogían en el acuerdo que acababan de firmar. Por ejemplo, que se determinara el nivel de competencia lingüística que deben adquirir los alumnos, que se recogiera en el propio acuerdo la creación, definición y requisitos y compromisos para formar parte del Servicio Público Vasco de Educación, o las propuestas para evitar la segregación. Al mismo tiempo, había otras claves que nos preocupaban: la falta de menciones a Euskal Herria, la no definición de la composición de la comisión de escolarización, la falta de referencia al Currículo Vasco, la falta de concreción en el tratamiento de las lenguas, la propuesta correspondiente al ciclo 0-3, etc. Entonces adelantamos que teníamos un largo camino por construir; que entonces partía el trabajo más difícil y significativo, que era el proceso de redacción de la Ley. Subrayamos que lo que recogía el pacto educativo tendría que tener una mayor concreción en la ley y que habría incidencias en el proceso de redacción. Han llegado esos momentos convulsos, pero estamos convencidos de que, si somos capaces de mantener la actitud constructiva mostrada hasta ahora, tenemos la oportunidad de materializar con éxito esta ocasión histórica que vivimos.

Han pasado más de siete meses desde que ofrecimos estas explicaciones, y en este tiempo, a principios de septiembre, conocimos el primer borrador de la Ley de Educación. Al leer el documento pudimos corroborar lo que se dijo entonces. Es decir,

que íbamos a tener discrepancias y, en consecuencia, altibajos en las determinaciones que exige la ley.

En los últimos meses hemos abierto procesos de debate en las ikastolas, hemos querido recabar la opinión de nuestra comunidad. Además, hemos organizado y llevado a cabo reuniones comarcales para analizar el borrador de ley y recoger las necesidades y deseos de las ikastolas.

Mediante esta iniciativa de hoy, queremos compartir las conclusiones de la reflexión con vosotros, la ciudadanía vasca. No haremos referencia directa al borrador de ley ni a su articulado; abordaremos el tema desde una mirada más general.

**1.** Entendemos que esta Ley debe contribuir a la transformación del Sistema de Euskal Herria y trataremos de contribuir en las posibilidades existentes para ello.

**2.** El sistema educativo del País Vasco está regulado por dos estados y tres administraciones diferentes (cuatro, con la cuadrilla de Treviño), lo que dificulta la tramitación de proyectos para todo el territorio vasco. En esto, las ikastolas hacemos un esfuerzo especial; el nuestro es un proyecto único para todo el territorio vasco, y las ikastolas cubrimos con nuestra actuación una serie de lagunas a las que no pueden llegar las diferentes administraciones, por ejemplo, promoviendo la colaboración entre las ikastolas de los siete territorios, trabajando proyectos comunes o impulsando iniciativas solidarias para las ikastolas que más lo necesiten. En esta Euskal Herria, al menos hasta ahora, las instituciones no nos han ofrecido un marco legal adecuado y, en consecuencia, nos han obligado a integrarnos en el esquema dual español o francés. Pero las ikastolas queremos ser un modelo diferente, y hemos trabajado duro para ello. Hoy, aunque los tiempos han cambiado radicalmente, queremos mantener nuestro compromiso con Euskal Herria y ofrecer nuestras señas de identidad al conjunto de la sociedad:

- Además del euskera que es nuestro eje;
- transmisión de la cultura vasca,
- currículo vasco,
- modelo democrático de gobernanza,
- participación, colaboración,
- innovación,
- producción de material propio...

Por ello, reivindicamos un nuevo marco legal para mantener y difundir estas características que son nuestra fortaleza.

**3.** Nuestro objetivo es un sistema educativo propio, para el que hemos dado pasos en las últimas décadas. Y ahora también nos toca dar pasos, generosos pero contundentes. Tenemos la intención de seguir haciendo nuestra aportación a la educación vasca durante todos estos años.

Una de las principales características de las ikastolas es que nos basamos en la comunidad educativa; si queremos apostar por una educación inclusiva y euskaldun tenemos que apoyarnos en la comunidad. Eso es lo que debemos exigir a esta Ley,

garantizar la autonomía real de la escuela para que esas características que son nuestras tengan la máxima difusión, porque nacimos con vocación pública. Y para ello consideramos imprescindible superar la dicotomía público-privada y regular un sistema que centre el Servicio Público Educativo Vasco.

**4.** La sociedad vasca tiene en la actualidad retos muy importantes. La segregación y la transmisión del euskara y la cultura vasca, entre otros. Y a estos retos tenemos que responder como país, de forma colectiva y a través de la colaboración entre diferentes agentes. Teniendo ante nosotros estos retos, no podemos estar riñendo entre los agentes (las ikastolas, desde luego, no lo haremos); todos somos necesarios, no es momento de peleas entre nosotros, sino de actuar juntos pensando como país.

Reivindicamos que es el momento de jugar a lo grande, tanto en las medidas en el ámbito del euskera y para asegurar la transmisión cultural, como para combatir la segregación.

**5.** El alumnado como eje. Queremos centrarnos en la innovación educativa, para ello reivindicamos un modelo avanzado de pedagogía, basado en la evidencia científica, centrado en el desarrollo de la persona... que busque un desarrollo integral y equilibrado de la persona, tanto en su vertiente física como emocional-mental.

**6.** Nosotros apostamos por un modelo popular siguiendo la tradición que tenemos en nuestra sociedad. El servicio público como eje, pero popular, con la participación directa de los ayuntamientos. Y apostamos por un modelo en el que la comunidad participe en las decisiones. Que se alimente con la colaboración entre agentes. Necesitamos diseñar nuestro futuro con todos los agentes que trabajan en el mundo del euskera, la cultura, el ocio y otros ámbitos de la sociedad.

**7.** Como hemos comentado anteriormente, hasta ahora nos han obligado a entrar en el esquema dual español o francés, pero en estos momentos, aunque sólo sea en Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, vemos la posibilidad de romper ese marco dual, por un lado, y de encauzar proyectos comunes entre los centros escolares de Euskal Herria, por otro. Queremos manifestar nuestro compromiso con las ikastolas que imparten enseñanza en euskera en Iparralde y Nafarroa.

**8.** Y esto es precisamente lo que queremos pedir en esta comparecencia:

- Definamos los requisitos, derechos y obligaciones que deben cumplir los centros para participar en el Servicio Público Educativo Vasco.
- Impulsemos un sistema vasco, integrador, que garantice la autonomía real de los centros.
- Y para ello, unamos las diferentes experiencias y realidades que ha habido hasta ahora. Las ikastolas podemos ayudar mucho a ello. Gozamos de una larga y autogestionada experiencia, un modelo propio hecho realidad en toda Euskal Herria.

Creemos en la capacidad y compromiso de los agentes educativos de Euskal Herria. Todos debemos hacer un esfuerzo por buscar consensos en el camino que queremos recorrer hacia un nuevo sistema educativo. Es nuestra oportunidad. Fijémonos en lo que



ikastolenelkartea

nos une y, desde ahí, recorramos todos los agentes el camino, en igualdad de oportunidades y en colaboración.

Y a lo que no podemos hacer en este momento, por qué no, darle la oportunidad para que se materialice mañana (Euskal Herria, unir experiencias y realidades diferentes), no cerremos la puerta al futuro.

Eso es lo que queremos ofrecer y exigir a los partidos políticos, a los agentes sociales y al conjunto de la sociedad.

Si realmente creemos en un nuevo, diferente y transformador Sistema Educativo Vasco, unámonos todos, tomemos lo mejor de cada experiencia y dejemos abierta la puerta a la Euskal Herria del futuro.

Y entendamos la ley como un paso importante en el camino de construcción de sistema educativo propio. Fijémosle un suelo firme, con la mayor precisión. Y en esa transición, en ese camino, las ikastolas estaremos ahí, honestas y leales, dispuestas a ayudar y debatir.

**Gu Euskara**  
**Gu Euskal Herria**  
**Gu Ikastola**